



## Bizipoza, Lasarte-Oriatik Lesbosera

Miren Bardaji herritarra Greziako Lesbos uharterean egiten ari den lana gizarteratzeko, ekitaldia prestatu dute hainbat eragilek, elkarlanean / 2

## Basoak ezagutzeko gida

Mari Azpiroz herritarra kide duen Aranzadi zientzia elkarteak 'Gure Basoak' liburua argitaratu du / 6-7

Lan ederra egin dute Ttakun KEren jantzi tradizionalen ikastaroan parte hartu duten kideek / 5

Axier Arteaga pilotariak Promozio mailako txapela eskuratu du, bigarrenez / 10

txintxarri

Hurrengo Txintxarri paperean abenduaren 18an (ostirala) argitaratuko dugu. **GABONETAKO BEREZIA**

Bitartean, jarraitu herriko albisteak sarean!

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

Trasteleku eta biltegi txikien alokairua Urnietan

Merkatuko preziorik onenak bermatzen ditugu!

**barnE**

605713127

Igarategi Industrialdea 70. URNIETA  
Bulegoa: Muebles Iturbe  
barne.eus

Gerturatu gure tailerrera:

**2car**

Zumaburu kalea 18  
20160 Lasarte-Oria  
Tel: 943 36 24 63



**100 €** arte erregaia **DOAN\*** eduki dezakezu

Neguko gurpilak eta AllSeason:

2 gurpil 40 € 4 gurpil 100 €

Udako gurpilak

2 gurpil 20 € 4 gurpil 50 €

\*Abenduaren 15era arte edo stocka amaitu arte

# Lasarte-Oria eta Lesbos batuko ditu elkartasunak

Inklusioa eta elkartasuna ardatz, 'Bizipoza Lasarte-Oriatik Lesbosera' ekitaldia prestatu dute herri mailan lanean ari diren hainbat eragilek, lasarteoriatar bat, Miren Bardaji, alor horietan Greziako irlan egiten ari den lana gizarteratu eta laguntzeko; diru-bilketa abian jarri dute

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Ireki koadernoa, hartu boligrafoa, eta hasi idazten, letra larriz: Abenduaren 10a, osteguna, 19:00ak, Manuel Lekuona kultur etxea. Egun, ordu eta toki hori aukeratu dute *Bizipoza Lasarte-Oriatik Lesbosera* ekitaldia prestatu duten eragileek, herriaren eta uhartearen artean dauden milaka kilometroak zentimetro bilakatzeko. Alor hauek, inklusioa eta elkartasuna, jorratzen ari da Miren Bardaji herritarra Greziako irla horretan. 2019ko abuztuaren iritsi zen hara, Moriako kanpamentuan bizi diren errefuxiatuentzako kirol jarduerak antolatzen dituen gobernuz kanpoko erakunde batekin elkarlanean. Hilabete baterako joan zen hara, baina, gaur-gaurkoz, bertan jarraitzen du. Buru-belarri koordinatu ditu emakumeak kirolaren munduan murgildu eta ahalduntzeko saioak. Bazterketa egoeran dauden pertsonen laguntza zuzenago bat emateko asmoz, Kairos taldea



Ekitaldia iragartzeko kartela. BIZIPOZA

asortu du, lankideekin eta Morian bizi den emakume talde batekin elkarlanean.

Mundu mailako pandemia lehertu zenetik, ordea, egunerokoa are okerragoa bilakatu da bertan bizi diren pertsonentzat; irailean kanpamentuan sutea gertatu zenetik, zer esanik ez.

Testuinguru horretan, Bizipoza elkarteak lagunek abagune "polita" ikusi zuten lasarteoriatar bat inklusioaren eta elkartasunaren alde Grezian egiten ari zen lana gizarteratu eta laguntzeko, alor horietan herri mailan diharduten eragile ugari eskua luzatuz. Egitasmoarekin bat egin dute Aspanogi, Beroa, Asociacion Chernobil Elkarteak, Gehitu, Izan Iñurri, Jalgune, Oporrak Bakean eta Puntada Solidaria eragileek, eta Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak. Aterpea Merkataria eta Ostalarien elkarteak, Lasarte-Oriako Udalak eta Ostadar SKTk ere lagundu dute.

Abenduaren 10eko jaialdia prestatzeko, makina bat bilera egin dituzte eragileek. Ekimenaren berri emateko, horietako batera gonbidatu dute TXINTXARRI aldizkaria. "Inklusioaren eta elkartasunaren alde lan egiten ari garen elkarte ugari batuta, Mirenen proiektuari ikusgarritasuna eman nahi diogu,

eta lagundu; haren lana bultzatuz, senti dezala ez dagoela bakarrik", adierazi dute.

*Bizipoza Lasarte-Oriatik Lesbosera* ekitaldiak uztartuko ditu ikus-entzunezkoak –parte hartu duten eragileen jarduna azalduko dute bideoek; horietako bat, Miren Bardajik Lesbosetik bidalitakoa–; hitzeko azalpenak –eragileetako ordezkariak zuzenean esplikatu dute zertan ari diren lanean–; eta kultur etxe oholtza gaineko emanaldiak, herriko zenbait artista profesionalak eskainiko dituztenak. Sorpresa eta emanaldi gehiago egongo dira. Antolatzaileek aurreratu dute "gaur egungo baldintzek baldintzatutako jaialdia" izango dela abenduaren 10ekoa, baina "berezia", elkartasunean, inklusioan, kulturaren eta euskaran oinarrituta.

Ekitaldiaz gozatu nahi duten lasarteoriatarrek gonbidapenak

**GONBIDAPENAK  
ABENDUAREN 9AN  
ETA 10EAN JASO  
AHALCO DIRA, KULTUR  
ETXEKO LEIHATILAN**

**BIZUM BIDEZKO  
DIRU-EKARPENAK EGIN  
DAITEZKE, 658 52 50  
58 ZENBAKIAN;  
KONTZEPTUA: 'LESBOS'**

eskuratu ahalko dituzte abenduaren 9an, 17:00etatik 20:00etara, eta 10ean, 10:00etatik 13:00era eta 17:00etatik 20:00etara, kultur etxeke leihatilatan. Ekitaldia grabatu egingo dute, eta ikusteko moduan jarri. Aldizkari honek, esate baterako, [www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus) web orrialdean zintzilikatuko du bideo hori, prest dagoenean.

## Diru-bilketa, martxan

Miren Bardajiren proiektua laguntzeko bide gehiago jorratuko dituzte eragileek: dirua biltzen hasi dira, esate baterako. Salgai jarriko dituzte Jone Bengoa *Sastraka* ilustratzaileak egindako *Munduak guztiztat beharko luke* diseinua daramaten postalak, bost euroan. Horrez gain, Puntada Solidaria ekimeneko kideek egindako materiala ere bai –maskarak gordetzeko zorroak, kasu–, bi euroko donazio baten truke. Herriko hainbat komertzioetan erosi ahalko dira; antolatzaileek eskuz esku ere salduko dituzte. Ekitaldiaren egunean ere bai: mahai bat jarriko dute kultur etxean. Errefuxiatuen egoera zein den erakuste aldera, argazki erakusketa bat ere egitekotan dabilta Jalgine, baina, momentuz, atzeratu egin dute, ostalaritza establezimenduek itxita jarraitzen dutelako gaur-gaurkoz.

Bizum bidez diru-ekarpinak egin ditzakete herritarrek, 658 52 50 58 telefonoan; kontzeptuan *Lesbos* hitza erabiltzeko eskatu dute antolatzaileek.

## Urteko azken kanpaina abiatu du Aterpea merkatarien elkarteak

2020ko azken kanpaina izan arren, ez da egingo duten azken ekitaldia izango. Euskararen egunarekin bat egin dute

## Txintxarri

Asteazken eguerdian aurkeztu du Aterpea merkatarien elkarteak urte honetan egingo duen azken kanpaina. Gabonetako sortak zozkatuko dituztela jakinarazi du merkatarien elkarteak lehendakariorde Ana Laureanok, horrela, bezeroen fidelitasuna saritzeko. Elkarteak osatzen duten establezimendu guztien izenean, eskerrak eman dizkie bezero guztiei, beste urtebetez eurengan jarri duten konfiantzagatik.

Elkarteko bazkide diren 42 establezimenduk bat egin dute

kanpainarekin, eta zozketan parte hartzeko, egindako erosketen truke, papertxo bat jasoko dute erosleek. Horiek datu pertsonalekin bete beharko dituzte. Abenduari hasiera ematearekin batera abiatu dute azken kanpaina hori, eta hilaren 29an amaituko da, asteartez. Horrekin batera, aurreratu dutenez abian duten azken kanpaina, ez da izango merkatarien elkarteak urte honetan egingo duen azken ekitaldia. Ez dute aurreratu zein izango den hori.



Ana ile-apaindegiaren aurrean egin dute agerraldia. TXINTXARRI

Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunarekin bat egin dute merkatariek prentsaurrekoan. Euskarak bide luzea egin duela adierazi dute, eta nabarmendu dute gizarteratu, eta konkretuki komertzio, ostalaritza eta zerbitzu

pertsonalen sektoreak, ahalegina egiten ari direla euskara duintasun guztiz leku eta eremu ezberdinetara eramateko.

Euskaraldiari babesa ere agertu diote, azalduz, etorkizuna ahoz aho salto eginez joango den euskararekin dagoela

azpimarratu dute, baita egunez egun hizkuntza indartuko duen konpromisoarekin ere.

Koldo Mitxelena esaldi bat ekarri dute gogora: "Hizkuntza bat ez da espiritu leun bat, izaki bizi bat baizik, gure gizarteran, biztanleetan bizi dena, beraiek dira bere oinarria eta beraiek dira bizitza ematen diotenak. Euskaraz 365 egun".

## Ezjakintasunez beteriko urtea

Urteko azken kanpainaren berri ematearekin batera, urtea urduritasunez, ezjakintasunez elkartasunez eta ikaskuntzaz betetako urtea izan dela ere azaldu du lehendakariordeak. Agerraldia amaitu aurretik, COVID-19aren ondorioz hil direnak izan dituzte gogoan, eta ostalariei ere babesa adierazi diete.



Kukuka, Erketz eta Ttakuneko ordezkariak, Agustin Valdivia alkatearekin batera, hitzarmenak sinatu berrikan. TXINTXARRI

## Herriko kultur ekintzak babesten jarraitzeko

Hitzarmen bana sinatu dute asteon Ttakun Kultur Elkartek, Kukuka antzerki eta dantza eskolak eta Erketz dantza taldeak udalarekin. Hiru erakundeetako ordezkari bana bildu da alkatearekin, astearte goizean, akordioak berresteko

### Txintxarri

Astearte eguerdian sinatu dituzte Ttakun Kultur Elkartek, Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolak eta Erketz Dantza Taldeak hitzarmen bana udalean. Bertan bildu dira hiru entitateetako ordezkariak udal ordezkariarekin.

Ttakun Kultur Elkartea izan da hitzarmena sinatzen lehena. Mari Karmen Ormazabal lehendakariak eta Agustin Valdivia alkateak hitzarmena sinatu dute orritz orri. Akordio horren bidez, kultur elkartearen Euskal Inauteria, San Tomas azoka eta Olentzeroren ekitaldia

babestuko ditu udalak. Hiru ekitaldi horiek aurrera eramateko, 13.495,91 euroko gastua du Ttakun Kultur Elkartek, eta gastu hori, 8.845 euroekin lagunduko du udalak.

Erketz Dantza Taldearen txanda izan da gero. Ruben Arranz lehendakaria arduratu da hitzarmena sinatzeaz, alkatearekin batera. 2.476,53 euroko gastua aurkeztu du dantza taldeak eta ehuneko ehuneko babestuko du udalak aurrekontu hori. Horren bidez, elkartearen mantenuan lagunduko du, hau da, bulegoko material suntsikorren

urteroko gastu, jantzien eta musikariaren materialaren mantenuan eta dantzako materialean lagunduko du.

Azkenik, Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolako Erik Arzallusek sinatu du hitzarmena. Kukukak 83.772,72 euroko aurrekontua du, eta 3.885,65 euroko laguntza eskaini dio udalak. Antzerki eta dantza eskolak emateko pertsonal gastuei, formakuntzak eta ordezkapenei elkartearen gastu orokorrei eta urtean zeharreko jarduerari aurre egiten lagunduko dio udalak hitzarmenaren bidez emandako diru kopuruarekin.



NEURE KABUZ  
LIERNI REKONDO

### Lasartearra eta euskalduna?

“Ez nukeen inoiz pentsatuko Lasartearra zinenik” hala esan zidan duela ez hainbeste unibertsitateko lagun batek. Momentuan ez nuen ondo ulertu zer zen horrekin esan nahi zuena, gerora, ordea, nire euskara mailaz eta funtsean nire euskalduntasunaz ari zela ohartu nintzen. Onartu behar dut amorru handia sortu zidala hori entzuteak, ni ez naizelako herri erdaldun bateko euskaldun bat, herriak euskaldundu duen erdaldun bat baizik.

Badira inertziak euskaraz hitz egitera zaramatzaten herri edo testuinguru euskaldunak, gurean, aldiz, erabat kontzienteki hartu beharreko erabakia da. Historikoki hain erdalduna izan den herri honetan, hautu pertsonal bat izan delako beti euskaraz egitea, eta noski, horrek, euskaraz bizi ahal izateko ekimenak eta arnasmuneak sortzera eraman gaitu; belarria zorroztea besterik ez da egin behar herrigintzan egindako lan guztiak eman dituen fruituez ohartzeko.

Herritar askoren antzera familia erdaldun batean sortua naiz neu ere, 60. hamarkada amaieran Lasarte industrial hartara etorritako etorkinen biloba eta alaba, euskara eta euskal kultura, beraz, ez ditut etxetik jaso. Landaberri Ikastolan irakatsi zidaten Argitxoren hizkuntza estimatzen, Erketz Dantza Taldean sartu nintzen ondoren hanka puntetan, Amalur eta Ttiriki Ttarra, Gazte Kluba eta Kuadrillategi, Bertso Eskolan ere hizkuntzarekin gozatzen eta jolasten ikasi nuen. Gaur egun, euskaraz bizi naiz, bertsotan egiten dut, eta noizean behin herriko aldizkarian idazteko aukera ere badaukat, euskaraz noski. Eta hori dena herrigintzari esker, herriari esker.

Beraz, ez nazatela berriz goraiatu lasartearra eta euskalduna izateagatik, ni ez naizelako herri erdaldun bateko euskaldun bat, herriak euskalduntutako erdaldun bat baizik.

### Ebatzi dituzte 2020ko kultur jardueretarako dirulaguntzak

Lasarte-Oriako bi elkartek jasoko dituzte udalak eskainitako 2020. urteko kultur jardueretarako dirulaguntzak; Zabaleta Auzolanek eta Danok Kide elkarteak.

Dirulaguntza horien bidez, Lasarte-Oriako elkarteek, proposatutako kultur jardueren programak babesteaz gain,

musika arte eszenikoak, arte plastikoak, literatura, zinema, irakurketa edo Lasarte-Oriako Udalak gauzatzen dituen beste edozein diziplinatan kultur jarduerak egiteko ekimenak sustatzen lagunduko dute, baita proiektuen kalitatea eta zehaztasun maila sustatzeko, besteak beste.

Zabaleta Auzolan elkarteak 1.427,25 euroko diru-laguntza jasoko du; Danok Kidek, berriz, 2.510 eurokoa.

 OPARITU ILUNABARRIK GOXOENA

**SunsetBastian**

www.sunsetbastian.eus    reservas@sunsetbastian.eus    @ssunsetbastian

**DOAKO IKASTAROAK LANGILE ETA LANGABETUENTZAT**

**ABENDUKO ESKAINTZA IREKIKO IKASTAROAK**

<p><b>ELEKTRIZITATEA / ELEKTRONIKA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Hidraulika</li> <li>IOT - Interneteko Gauzak: Raspberry eta Arduino</li> </ul>	<p><b>MANTENIMENDUA / ENERGIA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>2D instalazio termikoen diseinua: Autocad</li> <li>3D instalazio termikoen diseinua: Revit</li> <li>Hozteko Zentralea</li> </ul>	<p><b>FABRIKAZIO MEKANIKA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Metrologia</li> <li>Oinarritzko CAM GIBBS Fresatzaillea</li> <li>Neurketa hirukoitza MCOSMOS</li> </ul>	<p><b>LANERAKO PRESTAKUNTZA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>55 Metodologia</li> </ul>	<p><b>OSTALARITZA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Bezeroen arreta ostalaritzan/jatetxeetako enpresetan (Ebazteke daude)</li> </ul>
--	---	--	--	---

 **USURBILGO LANBIDE ESKOLA**  

CIFP USURBIL LHII    Etarte bidea, 9 (Zubieta auzoa) 20170 Usurbil    cursos@lhusurbil.eus · www.lhusurbil.eus    943 36 46 00 (Luz. 78) · 667 415 810

**ZUBIGUNE FUNDAZIOA**    www.zubigune.org · info@zubigune.org

## Erraustegiaren isurien kontrol herritarraren 2. fasea, martxan

Bigarrenaz, erraustegi inguruan laginak biltzen ari dira, ToxicoWatch fundazio holandarrak azter ditzan gero

### Txintxarri

Zubieta Lantzen eta Erraustegiaren Aurkako Mugimendua, Toxico Watch fundazio holandarraren laguntzaz, egiten ari diren erraustegiaren kutsaduraren kontrolaren bigarren fasea abian jarri da. Aste hauetan, berriro ere, laginak biltzen ari dira, fundazioari bidali eta emaitzak konparatzeko.

Erraustegia martxan jarri aurretik egin zen lehen lagin-bilketa, 2019ko udazkenean. Erraustegitik hurbil bizi diren emakume-amen esnea (horietako batzuk lasarteoriatarak), oilategietako oiloen arrautzak, landareak eta orriak, goroldioa, lurra, erreko sedimentua eta ura jaso zituzten.

Zubieta Lantzenek eta Erraustegiaren Aurkako Mugimendua kontrolaren abiapuntuko emaitzak jakitera



Lehen langin-bilketako irudia. TXINTXARRI

eman dituzte, baita bigarren fase honetako lagin-bilketa egiteko neurri berriak ere.

Emaitzei dagokionez, ikertutako arrautzek Europar Batasunak dioxinez dauzkan arauak betetzen dituzte. Bestetik,

dioxinek eta dioxinak bezalako PCBek kopuru txikiak erakutsi dituzte lurzoruan eta orrietan; ez dira iritsi detektatu ahal izateko kopurura ere.

Metal astunen neurketetan, lurzoruan eta landareetan urteotan zenbait industriak eduki duen jardueraren arrastoak ageri dira.

Uren laginetan ez da ia jarduera estrogenikorik aurkitu, soilik igoera txiki bat erraustegiaren oso inguruko sedimentuetan. Eta, amaren bularreko esne laginek, PCB maila txikiak erakutsi dituzte.

### Laguntza eskaera

Kutsaduraren kontrola eta osasunaren eta ingurumenaren babesa dagokien instituzio nagusiek, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak, haien ardurak betetzen ez dituztela salatu dute Zubieta Lantzenek eta Erraustegitaren Aurkako Mugimendua. Horregatik, Gipuzkoako udalei zein herritarrei dei egiten diete martxan den eta ondorengo urteetan jarraipena izango duen kontrol herritarra diruz babestu eta ekimenari laguntzeko.



TXINTXARRI

## Azaroko 'Azken Ostirala'

80 bat herritar batu dira azaroaren 27an, presoaren eskubideen aldeko mobilizazioan. Elizatze plazan elkarretaratzea egin dute ordu laurden inguruz, eta ondoren, Okendo plazara bidea egin dute Kale Nagusitik Tajamarreko biribilgunera, eta handik, Geltoki kaletik behera eginda. Plazan biribila osatu dute eta hitza hartu dute Itziar Arteagak eta Joxe Mari Agirretzek.

Beste behin eskatu dute preso gaixo guztiak kalera irtetea, aldentuta dauden euskal presoak herriratzea eta dagozkien eskubideak ematea. "Tantaka" urratsak egiten ari dira, aste honetan zazpi preso gerturatu dituzte, baina aurrera egiteko, "mobilizazioekin eta lanean" jarraitu behar dutela esan die Agirretzek bertaratutakoei. "Denon eskura dago indarra egitea". Jabi Gallaga, Aitzol Iriondo eta Ibon Fernandez Iradi euskal preso herritarren egoeraren berri eman dute jarraian. Abenduaren 26an Donostian egingo den kalejiran parte hartzea deitu dituzte bertaratutakoak. Bide batez, hilaren 31n Okendo plazan ekitaldia egingo dutela aurreratu dute.

# ikusgaitzak

Ezin dira euren familian hazi, eta harrera-familia baten beharra dute. Eta ikusten ez duguna existitzen ez denez, aurpegi eta begiak jartzea erabaki dugu. **Lagundu gaitzazu 60 harrera-familia aurkitzen.**

[gipuzkoa.eus](http://gipuzkoa.eus)

Erakutsi dezagun Gipuzkoaren aurpeirik onena.

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA  
ORAIN  
ES futuro



Ezker-eskuin: Nekane, Ana, Ana, Lone (irakaslea), Maite, Margari eta Axun. TXINTXARRI

## Taldean josteko tradizioari eusten

Mugak muga eta neurriak neurri, jantzi tradizionalen ikastaroa antolatu du Ttakun KEk aurten ere. Lan ederra egin dute ikasleek, Lone Artolaren aholkuak jarraituz

### Iñigo Gonzalez Sarobe

Irudi batek mila hitz baino gehiago balio duela esaten dute. Agian ez da kasu guztietan hala izango, baina, Ttakun KEren jantzi tradizionalen ikastaroan parte hartu duten ikasleen lanez hitz egiterakoan, bai, hala da. Adjektibo ponposoenek ere ez lituzkete artikulu hau janzteko erabili ditugun argazkiek adina zehaztasunez deskribatuko:

dotoreak dira oso -jantziak, ez horrenbeste argazkiak-.

Lone Artola herritarrak eman dizkie irakasbideak parte-hartzaileei. Jantziak sortzeaz gain, dagoeneko eginak zeudenak birziklatu egin dituzte zenbait ikaslek: esate baterako, zendutako ahaide baten jaka moldatu, gero beste senide batek erabil dezan. Kurtsoa "oso-oso ongi" joan dela azpimarratu du, eta "izugarri"

gozatu dutela talde giroan josten. "Bizi dugun osasun-egoera ikusita, pribilegio bat izan da guretzat taldean biltzen jarraitu ahal izatea; ikasleek asko baloratu dute elkartzeko aukera hori, are gehiago pandemia baten erdian. Kutsatze kasurik ez dugu izan".

Amaitu berri den egitasmoak utzitako aho zapore on horrekin prestatzen ari dira antolatzaileak Titare jostungintza ikastaroa. 2021eko urtarrilean hasiko da, osasun-egoerak ahalbidetzen badu, jakina. Talde bakarra osatu beharrean, bi egitea aurreikusten dutela aurreratu diote antolatzaileek TXINTXARRI-ri.



## Kuadrillategiko gazteak, herriko Beldun Barik lehiaketako garaile

Eguzki Zubia aktoreak 'Mi 3er acto' antzezlanaren oholtzaratu du Manuel Lekuona kultur etxean

### Txintxarri

Kuadrillategi egitasmoa lagun talde baten *Begiak itxi ditzala horrela ez nauenak gustuko* ikusentzunezkoa izan da Beldur Barik lehiaketaren garailea, eta, udal ordezkariak azaldu dutenez, kalitate tekniko eta artistikoaren gaintik, "hausnarketarako eta eztabaidarako sortzen duen aukera" baloratu dute. Neska gazteen ahalduzaren aldeko mezua zabaltzeaz gain, mutil gazteek matxismoaren aurka agertzen duten jarrera ere baloratu dute. Azaroaren 26an



'Mi 3er acto' antzezlanaren oholtzaratu. TXINTXARRI

banatu dituzte Lasarte-Oriako Beldur Barik lehiaketako sariak, Emakumeen Zentro Zibikoan; 200 euroko saria jaso dute irabazleek.

Bizitzaren bigarren erdian dagoen artista baten gogoetetan oinarritutako antzezlanaren oholtzaratu dute 27an, *Mi 3er acto* izenekoa; Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko egunaren harira Lasarte-Oriako Udalak antolatutako egitarauaren parte da.

Eguzki Zubia aktoreak emakumeek bizitzaren hirugarren zatiak bizi dituzten gorabeherekin jositako bakarrizketa ekarri du Manuel Lekuona kultur etxera. Umerez betetako eguneroko kontu ugari eta irribarrea izozten duten egia itsusi batzuk nabarmendu ditu bere pertsonaiaren ahotan.

## Emakumeei omenaldia eginez abestu du Anne Etchegoyenek

Artista batzuen kanta ezagunak ere tartekatu ditu, hala nola, Xabier Leterenak eta Violeta Parrarenak

### Txintxarri

Anne Etchegoyen abeslariak azken proiektua ekarri du Manuel Lekuonara. Emakumeei omenaldia den lanaren berri eman du, bere musikariek eta Les Voix Basque abesbatzak lagunduta. Ordu eta erdiz, *Emazte* azken laneko zenbait abesti eskaini ditu.

Emakumeei omenaldia egin eta, besteak beste, amatasuna, genero indarkeria edota askatasuna ardatz dute kantek. Baita Dolores Ibarruri *Pasionaria*-ri idatzitako *No pasarán* ere.



Anne Etchegoyen kantuan. TXINTXARRI

**Nerea Eizagirre**

2018. urtean, Aranzadi Zientzia elkarteko Botanika saileko kideek gure inguruaren ezagutza eskasarengatik kezka agertu zuten. Ezezagutza horri aurre egiteko asmotan, irailean *Gure Basoak* liburua aurkeztu zuten Donostiako Koldo Mitxelena kulturgunean. Aurkezpenean izan ziren hitzaurrea idatzi duen Toti Martinez de Lezea idazlea, eta babesle duten BERRIA egunkariko zuzendari Martxelo Otamendi. Botanika saileko kideak ere, noski bertan izan ziren, eta, horien artean, Mari Azpiroz Murua (Lasarte-Oria, 1979) herritarra. Harekin solastu gara *Gure Basoak* proiektuaren nondik-norakoei buruz.

**Aranzadiko Botanika sailak *Gure Basoak* liburua osatu du, gure inguruneko baso eta landareak ezagutzeko. Zein helbururekin? Ez al ditugu gipuzkoarrok gure basoak ezagutzen?**

2018an hasi zen dena, horrelako gauzak hasten diren bezala, kezka batetik. Arduratuta gaude gure inguruaren ezagutza eskasarekin. Paisaiak inguratzen gaitu, askotan ahaztu egiten bazaigu ere, edo arretarik jartzen ez badiogu ere. Eta paisaiaren oinarri-oinarri landareak daude, ingurune natural eta nekazaritza eremuetan, behinik behin. Basoak, zelaiak, heskaiak... ez leudeke, landarerik gabe. Ingurune urbanoetan ere, gero eta garrantzi handiagoa ari dira hartzen parke, berdegune eta eraztun berdeak. Zuhaitzek itzala emateko bakarrik balio dutela pentsa genezake, edo basoetakoek animalien bizitoki izateko, baina, zuhaitzak, ez dira hori bakarrik.

Dena den, kosta egiten zaigu bertako landareak ezagutzea, eta, beraz, landarez inguratuta gaudela ohartzea ere. Arazo hori, hain da ohikoa, izena ere bai baitu: landareekiko itsutasuna. **Zer da landareekiko itsutasuna?** Ezaguna bezain berria da itsutasuna, galera bi belaunalditan gertatu delako. Nekazaritza inguruetakoa adinekoek oraindik gogoratzen dituzte 60-70 espezieetik gora, eta heldu eta ume gehienek ez dituzte bost landare baino gehiago ezagutzen. Are gehiago, askotan, izendatetik identifikatzen ere, tartea egoten da. Izendatu, izendatzen badituzte ere, gero ez dira identifikatzeko gai.

Arazo horri konponbidea jartzen hasteko, Botanika sailekook

# "Arduratuta gaude inguruaren ezagutza eskasarekin"

**MARI AZPIROZ MURUA** ARANZADI ELKARTEKO BOTANIKA SAILEKO KIDEA  
'Gure basoak' liburua aurkeztu du Aranzadi elkarteko Botanika sailak. Harrera ederra izan du lanak. Lehen argitaraldia agortu da, eta bigarrena prestatzen ari dira



Mari Azpiroz Murua herritarra 'Gure basoak' liburua irakurtzen. GOIZANE LOPEZ ELIZONDO

liburu hau egin dugu. Bertan lotzen dira paisaia, habitata eta landarea; Gipuzkoan oraindik orain ez da horrelako dokumenturik egin. Liburu honetan, landareen identifikazioa helburu hartuta, pauso bat atzera egin eta basotik abiatu gara.

Liburu esku artean duela, irakurlea gai izango da bere

inguruko baso eta zuhaitziak identifikatu, eta gero bertako landareak ezagutzeko, aurretiaz inolako jakintzarik izan gabe gainera. Horretarako, liburua hiru atal nagusitan banatu dugu, beste bi atal gehigarri baditu ere.

**Mendian goazela alboan eramateko liburu da?**

Bai. Gure ustez ezinbestekoa da liburua mendira eramatea, baso eta zuhaitzietan bertatik bertara erabiltzeko baita. Behin zuhaitz eremu baten aurrean egonda, 'Non zaude?' ataleko galderei erantzunez jakingo du erabiltzaileak zer duen aurrean.

Hori egin eta gero, habitataren ilustrazioak izango ditu asmatu duen jakiteko, eta, azkenik, bertako espezieak ezagutuko ditu, habitat bakoitzean espezie batzuk zenbakitu eta deskribatu baititugu.

**Beraz, liburua ez da teoria soila. Zati didaktiko bat ere badu, jendeak alboan duen basoa ezagutzeko.**

Liburuak baditu atal teoriko batzuk: Gipuzkoako klima, orografia, historia... Horiek azaldu eta baso eta zuhaitzietan dinamikak erabat ulertzeko, eta baita etxekoek basoan egiteko ekintzen atal bat ere.

Mendi-gida horrek Gipuzkoako basoen eta basoko landareen informazio ugari du. Mendiko gidetan ohikoa ez den arren, garrantzia bera eman diegu landareei eta basoei; izan ere, landareak ez dira era isolatuan hazten, eta, beraz, landare horien testuinguruan –basoan– ere jarri dugu azpimarra. Horrela, irakurleak Gipuzkoako landareak identifikatzen ikasteaz gain, bertako baso-paisaiak interpretatzen ere ikasiko du.

Esan bezala, gure helburua jendea inguruan duenaz

ohartaraztea da, bertako baso zein landareen ezagutza eta interesa handitzea.

**Haritzia, pagadia... Gipuzkoako habitat ezberdinen azterketa sakona egin duzue, baita horietan dauden landareena ere. Era honetara, habitat bakoitzeko landareak zeintzuk diren zehazten duzue.**

Gure liburuan sei habitat natural eta seminatural bat barneratzen ditugu. Habitat horietariko bakoitzean adierazgarrienak diren espezieak aurkezten ditugu. Espezie batzuk habitat batean baina gehiagotan ere ager daitezke.

Landare bakoitzaren fitxen marrazkietan hostoak, fruituak, lore emeak, lore arrak eta bereizgarria den atalen irudiak marraztu dira. Testuan berriz, landarearen deskribapena, ekologia, banaketa, loraldi-garaia, tamaina-tartea, aurkitu daitekeen altitudea eta web orriari, Aranzadi Zientzia Elkarteko ARAN herbarioko landare plegu bat ere ikus daiteke.

**Landatutako basoek ere tartea dute. Zein eragin dauka horrek gure ekosisteman?**

Gipuzkoako lurraldearen luzetazabal osoan daude landaketak, lurraldeko mendi-hegal gehienetan. Egun, Gipuzkoako lurren ia erdiak landaketak dira (%45). Haran eta gailur altuenetan izan ezik, bien tarteko leku gehienetan egin dira landaketak, 200 eta 600 metroko altueren artean.

Landaketaren egitura oso adierazgarria da. Zuhaitz guztiak lerrokatuta egoten dira, eta lodiera antzekoa izaten dute; adin bertsukoak dira, alegia. Orokorrean, azpialdean ez dute adarrik izaten, zuhaitzei zuzen haztea komeni izanda kimatu egiten dituztelako. Landaketa zainduetan, oihanpea ere oso

**"KOSTA EGITEN ZAIGU BERTAKO LANDAREAK EZAGUTZEA ETA LANDAREZ INGURATUTA GAUDELA OHARTZEA"**

**"OHIKOA EZ DEN ARREN, GARRANTZIA BERA EMAN DIEGU LANDAREEI ETA BASOEEI"**

txiroa izaten da, garbitu egiten delako.

Landaketek, orokorrean, espezie dibertsitate txikiagoa izaten dute. Mozketek higadura handia dakarte. Halako praktikekin, lurzoruak erabat elkortzen dira, eta horri mozketa-txandak gehituta, ez dago ez denborarik ez elikagairik tokiko espezieak haz daitezen.

### Landare berezien tarte bat ere badago. Zergatik dira bereziak?

Bada Gipuzkoan basorik eratzen ez duen landare ugari, eta, liburu honetan denak sartu ezin direnez, espezie berezien atala sortu dugu.

Bistakoa da gizakiaren eraginak baso-habitatak murriztea eragin duela, eta horrek eragin handia izan du Gipuzkoako landare batzuk desagertzeko bidean jartzean. Hori dela eta, EAEn landare horiek babestea erabaki zen.

Liburuko atal horretan EAEn babestuta egon eta Gipuzkoan ordezkariak duten baso-landareak deskribatu dira.

### Lan eskerga da egindakoa. Zenbat denbora behar izan duzue liburua prestatzeko? Eta zenbat pertsonen parte hartu dute proiektuan?

Lehen esan bezala, 2018an hasi genuen proiektu hau. Ez da lan erraza izan proiektua aurrera eramateko diru-iturriak aurkitzea eta, alde horretatik, Ttakun Kultur Elkarteari eskertu nahiko genioke hasieratik beren onespina. Proiektuan Aranzadi Zientzia Elkarteke Botanika Saileko zazpi lankide izan gara buru-belarri eta Raul Dominguez ilustratzaile izan dugu. Lankide baina beste hainbat pertsonen kolaborazioa ere izan dugu ahaztu.

Proiektu hori taldeko lana izan da eta taldeko zazpiok izan gara egile aktibo, beraz Botanika

## "LANDAKETEK OROKORREAN ESPEZIE DIBERTSITATE TXIKIAGOA DUTE"

## "BISTAKOA DA GIZAKIAREN ERAGINAK BASO-HABITATAK MURRIZTEA ERAGIN DUELA"

saileko denon ametsa egia bilakatu dela esan genezake.

### Aipatu duzun bezala, Raul Dominguez Pazoren laguntza izan duzue. Informazioaz gain, ilustrazioei ere garrantzia eman nahi izan diezue.

Lan horretan garrantzi berezia hartzen du Raul Dominguez Pazok. Liburuko ilustrazio bakoitza errealismo itzelez egin baitu. Begi-kolpe batean, gai izango gara pareko habitat zein landareak identifikatzeko. Raulen parte hartzea garrantzi handikoa izan da, ilustrazioek, argazkien aldean, ale ideal bat irudikatzen dutelako eta, modu horretan, identifikaziorako beharrezko ezaugarri guztiak batera bildu daitezkeelako. Bereziki zaila irudikatzen genuen ilustrazioen gaia, baina Raulek bete-betean asmatu du, eta gure aurreikuspen onenak gaintitu ditu.

### Liburuaren hitzaurrea Toti Martinez de Lezea idazleak idatzi du. Zergatik aukeratu zenuten?

Garbi genuen hitzaurrearen egilea emakume bat izan behar zela. Gure saileko zazpi kideetatik bost emakumeak gara, eta esentzia hau hitzaurrean ere barneratzea nahi genuen.

Totik badu naturarekiko begirune eta mistikotasun bat eta berak gure ikuspegia ezin hobeki transmitituko zuela iruditu zitzaigun. Horrela, berarekin harremanetan jarri ginen, eta segituan onartu zuen gure proposamena. Guretzat plazer bat izan da Toti bezalako emakume borrokalari bat gure artean izatea.

### Liburuaren aurkezpena irailaren 22an izan zen.

Liburua martxoan aurkeztu behar genuen, baina, konfinamendua zela-eta, aurkezpen eguna atzeratu behar izan genuen. Modu horretan, irailaren 22an egin genuen aurkezpena.

### Harrera ona izan du liburua.

Lehen argitaraldiak izugarritzko arrakasta izan du, eta prestatu genituen 1.000 aleak hiru astetan agortu ziren. Oso pozik gaude izan duen arrakastarekin, eta gure lanak fruituak eman dituela ikustea oso atsegingarria izan da.

### Bigarren argitaraldi bat egingo duzue? Horrela bada, non aurki daiteke liburua?

Egun bigarren argitaraldia prestatzen gabiltza.

Bigarren argitaraldirako liburu erreserba egiteko aukera dago web orrian (<https://www.basoak>.

*eus/orri-nagusia*) Elkar eta Hontza liburu-dendetan ere egongo da eskuragarri.

### Herrian ere, Orbela belar dendan eskuratu ahal izango da. Aipatu duzun moduan, webgune bat ere sortu duzue.

Bai. Liburua esku artean izatea interesgarria iruditzen zaigu, baina, teknologien garai hauetan, webgunea garatzea beharrezkoa ikusten genuen. Webguneak etxetik edo mendian mugikor bidez erabiltzeko aukera ematen du, eta ikastetxeentzat eta material mota interesgarri izan daiteke.

### Liburuaren antzera, basoez gozatzeko hainbat dinamika aurkezten dituzue, baita saio didaktikoak eskaini ere.

Bai, hiru dinamika proposatzen ditugu, beti ere gure helburua natura errespetatzea delarik, hau da, naturan dagoena, naturan bertan utziaz.

*Herbarioa marrazten* proposamena adibidez, Nork bere inguruko landareak ezagutzeko era ezin hobea da. Landareak ezagutzeaz gain, Gipuzkoako dibertsitate bertatik bertara ezagutzeko aukera ematen du. 'Zer landare aurkitzen da erraz? Zein da urria?'. Galdera horiez gain, beste hainbat ere erantzun daitezke, herbario bat marraztuta: 'Nolako lekutan agertzen da landare bakoitza? Zer landare aurkitzen dira elkarrekin? Zein beti elkarrengandik aldentuta?'

Erantzun guztiak arkatx eta paper batekin bilduko dira. Horretarako, landare bat identifikatu ondoren, papera eta arkatza hartu, eta landarearen hosto bat kalkatu besterik ez da egin behar. Edota *Basoa*, urte guztiko irakasle dinamika. Honetan, hilabete bakoitzean egin daitekeen ekintza bat proposatzen da.

Baditugu hezkuntzari zuzendutako eskaintza pare bat ere, Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren hezkuntzara zuzendutak.

### Proiektu guztia aurrera eramateko babesa izango zenuten, ezta?

Bai. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiegu liburuan sinetsi eta proiektua bultzatu dutenei, hain zuzen ere, Kutxa Ekoguneari, Gipuzkoako Foru Aldundiari, Viveros Pagolari, Txukun Lorazaintzari eta BERRIA egunkariari.



'Gure basoak' liburuaren aurkezpena egin zen irailan. ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA



Liburuaren azala eta barruko orrialdeak. GOIZANE LÓPEZ ELIZONDO

# "Mugitu ezean, egoerak okerrera egingo du"

**XABIER KARRIL** GAZTEALDIA EKIMENEAN PARTE HARTU DUEN KIDEETAKO BAT

Bi aste igaro dira herritarrak euskara hutsean zortzi egunez bizitzeko ariketa amaitu zuenetik. Euskaraldian ere parte hartu du, eta aldatutako ohiturak "egunero" aplikatzen jarraitu nahi du

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Xabier Karril herritarra izan da Gaztealdia ekimenean parte hartu duen Euskal Herri osoko bederatzizko gazteetako bat; zortzi egunez euskara hutsean bizitzeko konpromisoa hartu zuten, tokian-tokian euskarak izan zitzakeen arnaguneak eta oztopoak azaleratzeko asmoz. Bi aste igaro dira Karrilek ariketa amaitu zuenetik, azaroaren 19a izan baitzen azken eguna. 20an, Euskaraldiarekin bat egin, eta hizkuntza ohiturak astitzen jarraitu du.

**Bi aste pasa dira Gaztealdia amaitu zenetik. Nola baloratzen duzu bizitako esperientzia?**

Oro har, balorazio nahiko positiboa egiten dut. Arnaguneak eta talkak topatu ditut; Gasteizen gehiago Lasarte-Orian baino. Batez ere, Gaztealdiak balio izan dit ezkutuan zeuden arnagune batzuk azaleratzeko.

**Zeintzuk izan dira arnagune horiek? Adibideren bat aipatzerik bai?**



Gaztealdian eta Euskaraldian parte hartu du Xabier Karril herritarrak. X. KARRIL

Gasteizen, gimnasio batera joateko ohitura dut, eta, Gaztealdia hasi aurretik, harreran dagoen langilearekin erdaraz egin izan dut beti. Ez nuen planteatu euskaraz jakin zezakeenik. Ariketa horri ekin nionean, apropos, euskaraz zuzendu nintzaion, eta hark euskaraz erantzun zidan, apur bat kostatzen bazen ere.

Gaztealdian murgilduta egon bitartean Lasarte-Orian igaro nituen egunetan ere topatu nituen espero gabeko arnaguneak. Uste dugu gazte guztiok euskaraz dakitela, eta, helduagoei, berriz, gehiago kostatzen zaiela; ezagutzen ez ditugunean, zalantza izaten dugu haiekin zein hizkuntzatan hitz egin. Euskaraz

zuzendu natzaie hainbati, eta ia guztiak euskaraz erantzun didate, inolako arazorik gabe. Asko poztu nau.

**Euskal Herriko bederatzizko gazte bozgorailua hartu duzue, euskararen egoerak belaunaldi horretak kideak ere kezkatzen dituela aldarrikatuz. Azaroko zortzi egun horietan, bat egin dute gazteek ariketarekin? Jarraitu dute ekimena?**

Sentsazio hori daukat nik. Sare sozialen bitartez, batek baino gehiagok adierazi digu gazteek antolatutako ekimen hori begi onez hartu dutela. Maialen Arteaga zornotzarrak kontaktu digunez [Gaztealdian parte hartu duen kideetako bat izan da Arteaga], bere inguruan Gaztealdia kutsatzea lortu zuen. Horrek argi uzten du gazteok zuzendutako ekimenez gazteengana iristeko gaitasun edo ahalmen handiagoa dutela, gu ikusten gaituzten horiek identifikatuta sentitzen direlako.

**Gaztealdian parte hartu duzuenok izan duzue aukerarik bizitako guztia partekatzeke, azaroaren 19tik?** Bai, elkartu gara, birtualki, eta hitz egin dugu, baina ez dugu nahikoa denbora izan oraindik Gaztealdiko bizipen, hausnarketa eta ondorio guztiak partekatzeke.

**Gaztealdia errepikatuko duzue? Maiztasun jakin bat emanda, agian... Euskaraldia, adibidez, bi urtean behin egiten da.** Elkartu garenetan, oraindik ez dugu asko hitz egin aukera horri buruz. Umiltasunetik, baina egiari zor, ariketak lortu duen

arrakasta ikusita, beharbada izan daiteke aurrerantzean maiztasun jakin batekin egiteko moduko ariketa bat, edo errepikatzeke behintzat, eman dituen fruituak ikusita.

**Gaztealdia amaitu, eta Euskaraldiari ekin zenion. Azaroaren 12tik egin zenituen aldaketak aplikatzen jarraitzen duzu egunerokoan?**

Euskaraldirako beroketa ariketa gisa hartu nuen Gaztealdia, eta bai, jarraitzen dut euskaraz bizitzeko hautua egiten, ahal dudan guztietan. Euskaraldia amaituta ere, egunero horretan jarraitzeko asmoa dut, ohitura horiek finkatzeko. Euskaraldian parte hartu dutenak gauza bera egitera animatzen ditut.

**Gaztealdian parte hartu duzu, duela bi urte Lasarte-Orian Euskaraldia dinamizatzeko hamaikakoteko kideetako bat izan zinen... Noiztik izan duzu euskararen alde lanean aritzeko grina hori?**

Ez nuke jakingo une zehatza zein izan zen adierazten. Lasarte-Orian bizita, Euskal Herriko arnagune oparoena ez den herri batean, eta ikusita azken urteetan mugimendu euskaltzaleek egoera soziolinguistikoa hobetzen nola lagundu duten, gogoia eta grina piztu zidan hori guztiak. Mugitu ezean, okerrera egingo baitu euskararen egoerak; horretaz kontziente izan nintzenean sartu zitzaidan har hori. Erabateko konbentzimenduz ari naiz, eta horretan jarraituko dut, egunero borroka egiten euskararen alde.

## Euskaraldiarekin bat egin, baina beste modu batean parte hartuz

### LASARTE-ORIAKO GAZTE BATZORDEA

Nerabeen Euskaraldia dinamizatu duten herriko gazteak

#### Txintxarri

Duela bi urte egindako lehenengo Euskaraldian hamasei urtetik beherako gazteek parte hartu ezin zutela- eta, Gazte Batzordea sortu zuten Lasarte-Oriako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek. Egitasmoarekin bat egin, eta gazteen egunerokoa girotzeko asmoz hasi ziren Gazte Batzordeen saioetan parte hartzen. Gogoan dute bideo mordoia grabatu zitzutela orduan: "Euskaraldian parte hartu ezin genuenez, ikastetxean egitasmoari lotutako ekintzak egiteko elkartu ginen".

Orduko bideak, ordea, jarraipena izan du aurtengo ere; buru-belarri dabilta Nerabeen Euskaraldiarekin, eta ekintza bat baino gehiago egin dituzte. Bi batzorde osatu dituzte; batetik DBH1 eta DBH2ko gazteek osatzen dutena, eta, bestetik, DBH 3 eta DBH 4koena. Astean bitan elkartzeko dira Ttakunenean dozena bat lagun. Gazteenak Oriarte Institutuko dinamizazioaz arduratzen dira eta, zaharrenak, berriz, Oriarte Larrekoetxeak.

Euskararen Nazioarteko Egunaren bezperan bildu da

TXINTXARRI aldizkaria Gazte Batzordearekin, eta egun horretarako prestatzen ari ziren ekintzaren berri eman diote: "Bingo musikatua prestatu dugu Euskararen Eguna ospatu eta Euskaraldiari amaiera emateko; azkenengo gauzak prestatzen ari gara". Iazko Abenduaren 3an egindako ekintzatik "ideiak hartuta" osatu dute aurtengo bingoa.

**Nerabeen Euskaraldirako txapak** Nerabeen Euskaraldirako txapak ere prestatu dituzte. Haiek diseinatu eta egin dituzte, banan-banan, egitasmoan parte hartzerantz. Dinamika hori eragingarria dela argi dute gazteek: "Mugimendu honekin jendea kontzienteago da; gure inguruan euskara gehiago



Asteazken honetan bildu da TXINTXARRI Gazte Batzordeko kideekin. TXINTXARRI

erabiltzeko baliagarria da". Horrez gain, egunero-egunero, goizeko zortzietan musika jartzen dute ikastetxeke bozgorailuetatik, eta baita ere patio garaietan, "ikaskideek gogoan izan dezaten Euskaraldian murgilduta gaudela".

Gogo eta konpromiso ederra erakutsi dute gazteek, Euskaraldia amaitzearekin batera, euren lanarekin jarraitzeko nahia azaldu dute: "Guk jarraituko dugu elkartzeko, eta datorren urterako ere zerbait prestatuko dugu".



# LASARTE-ORIAko

## UDAL EUSKALTEGIA

### ZURE BIZITZA EUSKARAZI



**Loreto, Santa, Flavio  
Andoni, Inasi**  
euskaraz behar dugu  
hitz egiten hasi  
beraz ez dakienak  
behar du ikasi  
hor da **EUSKARALDIA**  
euskararen oasi.

**Euskaraz ikasita  
denok irabazi  
egin nahi duenari  
hala ez galarazi.  
Eginaren eginez  
sustraituta hazi  
euskarak denontzako  
izango du grazi.**

**GEHIAGO,  
GEHIAGOREKIN,  
GEHIAGOTAN.**

**Euskaraz badaezpada  
hitz egin lehenbizi  
poliki hasi eta  
gero bizi-bizi.  
Hemengo hizkuntzari  
eginaz justizi  
hasi, jarraitu, hazi  
(e)ta euskaraz bizi.**

**Etxe, lantoki, denda,  
taberna, farmazi  
euskararen motorra  
mugituarazi.  
Erabiliaz ongi  
hainbat diplomazi  
gure bizitza behar da  
guztiz euskarazi.**

**LASARTE-ORIAN**  
**EUSKARALDIA**

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra



**AHOBIZI**



**BELARRIPREST**

# Promozio mailako txapela, Lasarte-Oriara

Axier Arteagak, Arteaga II.ak, Elordi garaitu zuen Promozio mailako buruz buruko finalean. Herritarrek maila horretako txapela janzen duen bigarren aldia da. Hurrengo urteko buruz buruko txapelketa nagusian jokatzeko txartela lortu du

## Txintxarri

Ez zen izan Axier Arteagak, Arteaga II.ak amestutako partida izan azaroaren 28koa. Hala ere, lasarteoriatarra pozarren dago: bigarrenez jantzi du Promozio mailako buruz buruko txapela. Tolosako Beotibar pilotalekuan jokaturako finalean Aitor Elordiri gailendu zitzaion, 12-22.

2017. urtean lehen txapela eskuratu zuen Arteaga II.ak Promozio mailako buruz buruko txapelketan, Bakaikoari 22-18 irabazita. Elordi, berriz, iaz txapeldunorde izan zen. Aurrekari horiekin, askorentzat partidako faboritoa zen herritarra, eta aurreikuspenak bete egin ziren.

Arteaga II.a ondo hasi ez bazen ere, lehen atsedendialdiaren ondoren aurre hartzen joan da Baiko enpresako aurrelaria.

Ez zuen ondo hasi norgehiagoka Arteaga II.ak. Kosta egin zitzaion partidaren lehen zatian eta markagailua oso berdinduta



Axier Arteaga, Arteaga II.a, Promozio mailako txapela eta garaikurra jaso berritan. T. VALLES

egon zen, lehen atsedendialdira heldu arte. Eseri zirenean 12-10 aurretik zihoan lasarteoriatarra.

Orduetik aurrera, ordea, aldatu zen norgehiagoka. Aldea handitzen joan zitzaion Elordiri, lau tanto jarraian eginda, eta

bakarra gehitu ahal izan zuen bizkaitarrak bigarren etena artekoan. 18-11 heldu ziren une horretara. Kantxara bueltan, aldaketarik ez zen izan eta lasarteoriatarra nagusitu zen. 22-12 irabazi du finala.

Arteaga II.a ez dago konforme egindako lanarekin. "Ez zen partida txukuna izan. Elkarri opari eta aukera asko eman genizkion. Ez zen izan amestutako partida", adierazi du herriko pilotariak.

Lasarte-Oriako pilotariak momentu horretan ahal izan zuen guztia eman zuen eta azken tantora arte ez zuen bere burua txapelduntzat izan. "Partida guztietan saiateren naiz onena ematen, baina finalak gehiago balio du. 22garren tantora arte ez nuen nire burua irabazletzat izan. Buruz burukoan tanto asko izaten dira eta edozer gauza gerta daiteke".

## Bi urtetako lanaren ordaina

Partidaren hainbat gako azaldu dizkigu Arteaga II.ak. Nahiz eta txapelketa hasi berritan, marrako sarea aurreratzeak arazoak sortuko zizkiola adierazi, ederki moldatu da sakearekin txapelketa osoan eta finalean ere erabakigarria izan zen. "Txapelketan honetan saiateren naiz sakea moldatzen. Egia da sakearekin finalean dezente asmatu nuela eta garaipenaren gakoetako bat hori izan zen".

Txapela azken bi urteetan egin duen lanaren fruitu ere badela onartu du. "Azkeneko bi urteetan asko entrenatzen ari naiz eta egindako lan guztiaren aitormena da. Lan asko egiten ari naiz fisikoki eta mentalki. Nutrizioa zainduz".

Une txarrak ere izan dituela aitortu du Arteagak. Baina bi urtetan emaitzik jaso ez arren, herritarrek ez du etsi. "Lan asko egin eta emaitzik jasotzen ez denean, etsitzea da buruan duzun aukeretako bat. Nahiz eta hori burutik pasa, lanean jarraitu dut eta txapela lan horren saria da".

Harritxo bat izan du bidean, ordea, ezkerreko eskuko hatz bat hautsi zuen urrian. "Inflexio puntua izan zen hatza haustea. Geratuarazi zidan eta lanean nola ari nintzen hausnartu ahal izan nuen. Aztertu eta beste ikuspuntu bat hartu nuen. Eta hori ere gakoetako bat izan da".

## Ikasten jarraitu

Promozio mailako txapela irabaztea pozgarria da eta gehigarri bat du Arteagak azaldu modura. "Datorren urteko buruz burukoari begira ateak irekiko dizkit txapelak. Lehen mailako txapelketarako txartela izango dut. Horri esker, onenen aurka jokatzeko aukera izango dut".

Ordura arte, txapelketa ezberdinetan parte hartzea espero du herritarrek. Lehena Lau eta Erdiko txapelketa izango da. "Pentsatzen det bigarren mailakoa jokatu dudala. Lehen mailan edo bigarren mailan jokatu, ikasten jarraituko dut. Baina horretan baino nire lanean zentratzen naiz; pilotalekura ateratzen naizenero ahal dudan onena ematen saiateren".

## Lasarteoriatarrek bikain, Euskadiko Kluben kopan

Bidasoa XXIeko Martin ahizpek lau probana irabazi, eta Buruntzaldea IKTKo igerilariak markak ondu zituzten

## Txintxarri

Euskadiko Kluben Igeriketa Kopa jokatu zen asteburuan, Getxoko Fadura igerilekuan. Bi jardunaldi ezberdin izan ziren jardunbatean, emakumeak lehiatu ziren, gizonak, berriz, igandean. Azaroaren 28ko saioan Buruntzaldea IKTKo igerilariak, zein Bidasoa XXI taldeko Ainhoa eta Leire Martin izan ziren lehian. Martin ahizpek euren proba guztietan garaipena eskuratu zuten; Buruntzaldea IKTKo gazteek, berriz, markak ondu zituzten.

Bidasoa XXI taldea nagusi izan zen jardunaldian. 21 probetatik hamazazpitan garaile izan zen Irungo taldea, lau errelebo probak barne. Ainhoa eta Leire Martin herritarrek garaipenaren zerikusia handia izan zuten.

Ainhoak 100 m. eta 200 m. bular, zein 200 m. eta 400 m. lau estilo probetan irabazle izan zen. Leire, berriz, 50 m., 100 m. eta 200 m. bizkar probetan eta 100 m. lau estilo proban lortu duen garaipena.

50 m. bizkar proban lehen postua eskuratzeaz gain, Leirek

17 urte azpiko Euskadiko marka ondu zuen. Aurreko astean Castellón egindako marka hobetu zuen gazteak ehuneko batzuetan, 28,70.

## 11 marka berri

Buruntzaldea IKTKo neskek ere bertan izan ziren lehian. 11 marka pertsonal ondu zituzten eta seigarren postuan amaitu zuten proba.

Borja Apeztegia prestatzailea pozik dago igerilariak egindako lanarekin. "Geneukan partehartzaile kopuruarekin espero genuen hori. Proba guztiak betetzeko gutxienez bederatzi igerilari behar dira, eta sei igerilariekin egin zuen gure taldeak. Beraz, ez da makala neskek egindakoa".

Markei dagokionez, Nahia Zudairek 200 m. libre, zein 100



Buruntzaldea IKTKo igerilariak. BURUNTZALDEA IKT

m. eta 200 tximeletako denborak hobetu zituen, baita S8 mailako taldeko errekor berriak ezarri ere.

Garazi Etxeberriak 50 m. bular, 100 m. tximeleta eta 400 m. lau estilo probetan marka berria

ezarri zuen; Izaro Audikanak 100 m. tximeleta eta 100 m. lau estiloak probetan; Saioa Elolak 50 m. eta 200 m. bizkar probetan; eta, June Lopezek, 50 m. bizkar proban.

## Pausu bat gehiago

Hala ere, emaitzak alde batera utzi, eta igerilariak euren garapenean pausu bat gehiago eman ahal izan zutelaz aipimarratzen du Buruntzaldea IKTKo arduradunak. "Gurek lehiatzeko aukera berri bat izan zuten, eta, horrekin batera, igerilari izatearen prozesuan pausu bat gehiago ematekoa ere".

Buruntzaldea IKTKo igerilariak ez dakite lehiatzeko hurrengo aukera noiz izango den. Hala ere, entrenatzen jarraituko dute. "Momentua iristen denean, prest egon beharko dugu".

# Denboraldiari agur esan aurretiko ezinegona

Ezohiko denboraldiaren azken jardunaldia abenduaren 8an jokatu da. Hirugarren jardunaldian, Raul Ramos herritarrak Pirulo saria eskuratu zuen Parabak zaldiarekin. Espainiako Hipodromoen elkarteak 2021 urteko behin-behineko egutegia onartu du

## Txintxarri

Udazkeneko ezohiko denboraldiari agur esango dio Donostiako Hipodromoak, abenduaren 8an, asteartea.

D'Epsom-1916 sariak emango dio hasiera, 11:45ean denboraldiko laugarren eta azken saioari. Bateria de Damas, Gipuzkoa kirolak, Giralda Turf eta Portaletas sariak osatuko dute jardunaldia. Horietan hiru urte baino gehiago dituzten zaldi, behor eta moxalek parte hartuko dute.

Azken saio horren aurretik, azaroaren 27an, jardunaldi interesgarria izan zen.

Lehen sarian, Loretope sarian, Machu Picchu eta Brujildaren arteko norgehiagoka egon zen. Brujildaren jockeyak Raul Ramos herritarrak ez zuen asmatu eta Machu Picchuk kanpoko errailetik garaipena eskuratu zuen

Txikiardi sarian eta Uli Mendia sariak, Mila Hrubosova jockeyak eskuratu zituen. Lehenean Bella Canarias behorra gidatuz, barruko erraila hartu eta arerioei aurre hartu zien.

Bigarrenean, berriz, Linda behorarekin buru zihuan Battle of Waterloo faboritua harrapatu eta pasa zuen helmugara lehena iritsiz.



Raul Ramos hockeya, Ivan Lopez prestatzailea eta Parabak zaldia. DONOSTIAKO HIPODROMOAN

Lehen sariko arantzaxoa kendu zuen Raul Ramosek Pirulo sarian. Garaipen eroso lortu zuen Parabak zaldia gidatuz. Arratsaldeko hirugarren garaipena kendu zion Hrubosova-Urban Rock bikoari, gainera.

Arratsaldeko azken proba Santa Klara uhartea izan zen. Espero zen bezala, Arizkorretak entrenatutako Titok eraman zuen saria. Garaipen erraza eraman zuen, bere atzetik Kuko sei gorputzetara iritsi baitzen.

## 2021. urteko egutegia

Denboraldia amaitzear dela, 2021. urteko behin-behineko

egutegia onartu du Espainiako Hipodromoen elkarteak.

Egutegiaren arabera, hurrengo urtean hemeretzi jardunaldi jokatu dira Donostiako Hipodromoan.

Bi denboraldi ezberdin izango dira udaberrikoa eta udakoa. Lehena lau jardunaldiz osatua egongo da: martxoaren 12a, 19a eta 26a, eta apirilaren 2a.

Gainerako hamabostak udako denboraldian izango dira. Ekainaren 3an hasi eta irailaren 5era arte astero zaldi lasterketez gozatzeko aukera izango da. Urrezko kopa, abuztuaren 15ean jokatu da, igandea.

## Asier Sagasti judokak, Espainiako txapelketa jokoan

LOKEko judoka 100 kilo azpiko mailan lehiatuko da larunbatean, Madrilgo Marriot Auditorium hotelean

## Txintxarri

LOKEko judo saileko Asier Sagasti lehiara itzuliko da larunbatean. Ez nolana, gainera; Espainiako Txapelketa jokatu du.

Herritarrak 100 kilo azpiko kategorian parte hartuko du eta maila handiko lehia egotea espero da, Espainiar estatuko onenen aurka lehiatuko baita herritarra. Horregatik, helburua esperientzia bizitzea dela azaldu digu Gorka Aristegi judo saileko prestatzaileak. "Txapelketako maila oso altua da, eta, Asierren pisuan, oso gogorra. Gu esperientzia bizitzera goaz; ea borroka batzuk irabazten ditugun".

Aurtengo edizioaren berrikuntza nagusia kokalekua izango da. COVID-19aren aurkako neurri aurre egiteko, ohiko kiroldegiak alboratu, eta



Asier Sagasti judoka. LOKE JUDO

txapelketa hotel batean antolatu da: "Hotela burbuila izango da. Neurri oso zorrotzak bete beharko dira. Esate baterako, kirolariak PCR negatiboa aurkeztu behar izan dute eta bertan beste bat egin beharko dute", jakitera eman du Aristegik.

## Ostadar SKTren bazkide kanpaina, abenduaren 18ra arte

Abenduan sartzearekin batera, Ostadar SKTk bazkide kanpaina jarri du martxan.

Elkarteak, 800 kirolari ditu; urtean zehar hainbat ekitaldi berezi antolatzen ditu, hala nola, Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia eta Korrika Festa, saskibaloiko 3x3 txapelketa edo bolo eta tokako tirada bereziak, eta herriko ekonomia sustatzen ditu.

Hori guztia aurrera eramatea ezinezkoa litzateke babesik gabe, horregatik, egitasmo honetako partaide izatera animatzen ditu herritarrak. Horretarako [ostadarskt.eus](mailto:ostadarskt.eus) helbidera mezu bat bidali behar dute interesatuek. Abenduaren 18ra arte izango da bazkide egiteko aukera.

Era berean, Ostadar SKTk bazkide direnei euren laguntza eskertzen die eta kirol taldearekin jarraitzea animatzen dituzte, "kirol egitasmo hau gauzatu ahal izateko zuen babesa ezinbestekoa baita".

## Añorga KKEk nagusitasunez garaitu du CD Arratia

Añorgako taldeak 5-0 irabazi dio talde bizkaitarrari. Izaskun San Anizeto herritarrak bigarren gola egin du

## Txintxarri

Igandean, azaroaren 29an, Añorga eta CD Arratiaren arteko partida jokatu zen. COVID-19a dela-eta, partida bitan atzeratu behar izan dute eta hirugarren saiakeran jokatu ahal izan dute.

Partida zaila izan zuen taldeak aurreko astean, Real Sociedad B sailkapeneko liderraren aurka eta 4-1 erori ostean, Javi Solchagaren taldeak hutsa konpontzeko aukera izan zuen Bizkaiko taldearen aurka.

Hasieratik nagusi izan zen Añorga eta lehen minutuan aurreratu zen Nora Sarriegiren gol bati esker.

Izaskun San Anizeto herritarrak zortzigarren minutuan, bigarren gola egin zuen alderatze baten ostean.

Bigarren zatian, Añorgak arriskua sortu zuen, baina azken minutuetara arte ez zen baloia sarean sartu. Hirutan gainera, Ane Lopezek bi gol egin zituen eta Malenek azkena, partida bukatzear zegoela.



Izaskun San Anizeto herritarra Oiartzun taldearen aurkako partidaren irudia. CONCHI SANCHEZ FRAIL

# PANTAILA DIGITALAK: NOLA BABESTU TXIKIENEN IKUSMENA

Egunean zehar denbora asko pasatzen dute haurrek pantaila mota ezberdinei begira, eta kutsadura mota guztiekin gertatzen den bezala, epe luzera eragin kaltegarria izan dezake haien begien osasunean.

Datuen arabera, batez beste 11 ordu pasatzen dituzte pantailari begira egunean eta erabiltzaileen %80ak, bost pantaila edo gehiago begiratzen ditu egunean.



Pantailek begientzat kaltegarria den argi urdin mota bat igortzen dute, eta garrantzitsua da filtro berezi batekin babestea. Gehiegizko esposizio horrek honako ondorio kaltegarriak ditu, besteak beste:

- Miopia areagotzea, umeen kasuan batez ere.
- Erretina kaltetzea pantailek igortzen duten argi urdinaren ondorioz.
- Lo egin ezina.
- Buruko mina.
- Begietako azkura.
- Begiak gorritzea.

Haurren begi osasunaren prebentzioan beste urrats bat egiteko helburuarekin, **MULTIOPTICAS**en gure lantzei argi urdin kaltegarria filtratzeko **IBESLAYT TECHNOLOGY** tratamendua gehitu diegu.

## MULTIOPTICAS



### TXIKIENEN KONTSUMOA



#### HIRU HAURRETIK BAT

pantailadun gailuak erabiltzen hasten da **3 urte bete aurretik**



#### 3 ORDU

ematen dituzte haurrek pantailen aurrean, batez beste



#### 4 ORDU

igarotzen ditu hiru haurretik batek pantailari begira



#### 5 URTE

dituzten haurren ia erdiak pantailadun gailuak osoki erabiltzen hasten dira



#### EGUNEAN 4 ORDU

baino gehiago egiten dituzte batez beste 12 eta 17 urte arteko nerabeek pantaila bati begira, ikasgeletan erabiltzen dituztenak kontuan hartu gabe



#### 9 URTEREKIN

eskuratzen dute haurrek haien lehen mugikorra

#### Hauek dira onurak:

- Haur miopiaren garapena prebenitzen du.
- Ikusmenaren stresari eta nekeari aurre egiten dio, ikusmena erlaxatuz.
- Distira gutxitu eta kontrastea hobetzendu, ikusmen erosoagoa eta koloreen naturaltasuna eskainiz.
- UV izpietatik babesten du, begiaren zahartze prozesua motelduz.
- Erretinako zelulen heriotza murrizten du.

**MULTIOPTICAS**en haurrei zuzendutako azterketa bisual berritzaile eta eksklusiboa egiten dugu, **SCHOOLVISUALTEST** izeneko. Haurraren garapen bisual eta kognitiboari eragiten dioten osagai guztien balorazio zehatza egiten dugu azterketa horren bidez.

**Eskatu hitzordua inolako konpromisorik gabe eta balora ezazu zure haurraren ikusmena.**

**2mó** graduatu **BLUESTOP** FILTROA BARNE

**99€**

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.




Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
**LASARTE-ORIA**

**MULTIOPTICAS**



www.multioplicas.com

KOMIKIAK



ZORION AGURRAK



**Oier**  
Zorionak xagu!! Asko maite zaitugu! Muxu pottolo bat etxekoan partetik.



**Maitane**  
Urtebete gehiago edo gutxiago, gozatzea da garrantzitsuena. Zorionak!

**Urte askotarako!**

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak

**Internet**

Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/zorionagurrak eta Bidali zure zorion agurra formularioa bete. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

**Posta elektronikoa**

Mezua bidali txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudiaz.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu..

JAIOTAKOAK

**Genesis Belen Sanchez Leon.** Azaroaren 16an.

HILDAKOAK

**Felix Moreno Andrade.** Abenduaren 1ean.  
**Sebastian 'Patxan' Echaniz Zaldia.** Azaroaren 29an.  
**Jose Jimenez Redondo.** Azaroaren 26an.

TELEFONOAK

**UDALAREN TELEFONOAK:**  
ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLDEGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KIUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTTERI AEK: 607 625 233

**LARRIALDIKO TELEFONOAK:**  
OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERTZAINZA: 943 538 840  
SOS DEIAK: 112

GUARDIAKO FARMAZIAK

- OSTIRALA, 4 ACHA-ORBEA
- LARUNBATA, 5 LASA
- IGANDEA, 6 LASA
- ASTELEHENA, 7 URBISTONDO
- ASTEARTEA, 8 LASA
- AZTEAZKENA, 9 DE ORUE
- OSTEGUNA, 10 DE MIGUEL
- OSTIRALA, 11 GANDARIAS-URIBE
- LARUNBATA, 12 GIL
- IGANDEA, 13 GIL
- ASTELEHENA, 14 GIL
- ASTEARTEA, 15 ACHA-ORBEA
- AZTEAZKENA, 16 GANDARIAS-URIBE
- OSTEGUNA, 17 URBISTONDO

**EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00**  
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00**  
Urrutia-Martin: Etxeberri auzoa 1 (Florida auzoa), Hernani/ 943 55 77 38

**Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.**  
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).



**FERNANDEZ IRADI,  
IBON**

---

CENTRE PÉNITENTIAIRE LANNEMEZAN  
RUE DES SALIGUES, BP 70166  
65307 LANNEMEZAN CEDEX  
FRANCE

## AZOKA TXIKIA

### LANA

#### ESKARIA

Baratzeko lanak egin edo pertsona helduak zaintzeko prest nago. Harremanetarako zenbakia, 627 20 61 10.

Pertsona helduak zainduko nituzke. Internamoduan edo orduka. Harremanetarako zenbakia, 676 18 84 11.

Pertsona helduen zaintzan lan bila nabil. Interna edo orduka izan daiteke. Harremanetarako zenbakia, 666 09 67 61.

Neska euskaldun bat eskaintzen da astean behin eta arratsaldez ebeko lanak egiteko. Nire telefonoa: 646 48 58 11

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta ebeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. 663 48 84 38.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka, gauean edo ospitalean gauak egiteko prest. 634 27 81 98.

### ETXEBIZITZAK

#### EROSI

Apartamentu baki bat bilatzen ari naiz erosteko, Lasarten. Logela batekin nahiko. Igoigailuarekin. Ez dut nahi atikoa ezta lofta ere ez. Nire telefonoa 660 55 23 53 da.

### IKASTAROAK

#### ESKARIA

Ingeleseko klase partikularrak emango nituzke. Jatorrizko hizkuntza dut, eta esperientzia ere bai eskoletan, institutuetan eta helduentzako eskoletan. 691 63 03 13. [bentley.ma@gmail.com](mailto:bentley.ma@gmail.com).

Txokoalden, tren geltoki zaharrean, txalaparta

klaseak ematen ditut. [tagoredoremi@gmail.com](mailto:tagoredoremi@gmail.com) edo 678 07 10 41 (WhatsApp ez).

### SALEROSKETA

#### SALDU

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aukia + Maxicosia. Arina, erosoa eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 250 euro. 646 82 44 66.

## NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira soilik

### TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

### TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne) [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus) 646.824466

## ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48  
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: 80 €  
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: 90 €

Txintxarri: doan eta euskaraz  
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



## Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

### Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

### Administraria

Nerea Garziarena.

### Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,  
Maddi Zaldua eta  
Maitane Aldanondo.

### Publizitatea

Iratzi Zatarain.

### Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Maider Galardi, Mikel Yarza,  
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta  
Aizpea Amas.

### Banatzzaileak

Julene Iraola eta Uxue Odriozola,  
Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza, Jose  
Lanchas, Iñigo Garcia, Igone  
Mendizabal eta Lide Hidalgo.

### Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

### PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

### EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@txintxarri.eus](mailto:txintxarri@txintxarri.eus)

### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

### Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.350 ale

## BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

## DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

## ASTEARTEA 8

### LASARTE-ORIA Mobilizazioa

Lasarte-Oriako ostalariei elkartasuna adierazteko kalejira egingo da. Kotxeras, 11:00etan.

## ASTEAZKENA 9

### LASARTE-ORIA Ekitaldia

Opera digitalaren barruan, Australiako Balletak eskainitako *Spartacus* lana ikusiko da. Sarrerak aurrez, 7,5 euro; egunean, 9 euro.

Manuel Lekuona, 18:00etan.

### LASARTE-ORIA Solasaldia

Lasarte-Oriako EH Bilduk *Beterri Buruntzaldeako zaintza erregimenaren diagnostikoa eta ekintzarako proposamena* txostenaren inguruko solasaldia antolatuko du. Emagin eta Maitelan eragileetako kideak gonbidatu dituzte egitasmoaren berri ematera. Aurrez izena eman behar da 683 31 98 21 telefonoan edo [lasarte-oria@ehbildu.eus](mailto:lasarte-oria@ehbildu.eus) helbide elektronikoa. Antonio Mercero aretoa, 18:00etan.

### LASARTE-ORIA Solasaldia

Iñaki Petxarroman herritarra *Ezezagunerako bidaia* liburuari buruz solastuko da. Aforo mugatua. Osasun Zentroko bigarren solairua, balioanitzeko gela, 19:30ean.

## OSTEGUNA 10

### LASARTE-ORIA Ipuin kontaketa

Kontu kantoiko kideek 4 eta 6



**LASARTE-ORIA Omenaldia eta dokumentala.** Antonio Oliden Lasarte-Michelin traineruko patriari omenaldia egingo zaio. Omenaldiaren barruan, Kantauri itsasoko arraun munduari buruzko *Ziaboga* dokumentalaren emanaldia izango da. Iñaki Pinedok zuzendutako dokumentalak traineruen historia jorratzen du, batez ere, joan den mendeko 40ko hamarkadatik gaur egun arte doan garaia erakusten du bere protagonisten ahotsean. Besteak beste, Antonio Oliden herritarraren testigantza jasotzen da. Edukiera mugatua. Gonbidapena behar da. Manuel Lekuona kultur etxea, igandea 13, 19:00etan.

urte bitarteko haurrei eskainitako ipuinaren ordua egingo dute. Edukiera mugatua izango da. Gonbidapenak udal liburutegian jasoko dira.

Manuel Lekuona, kafetegia, 18:00etan.

### LASARTE-ORIA Irakurle txokoa

Maddi Ane Txoperenaren *Ene baitan bizi da* lana izango dute hizpide Irakurle txokoa. Idazlea saioan izango da liburuaren nondik norakoak azaltzen.

Osasun Zentroko bigarren solairua, balioanitzeko gela, 18:30ean.

### LASARTE-ORIA Ekitaldia

*Bizipoza Lasarte-Oriatik Lesboera* ekimena antolatu du Bizipoza elkarteak, herriko hainbat eragileekin elkarlanean. Gonbidapena behar da. Manuel Lekuona, 19:00etan.

## LARUNBATA 12

### LASARTE-ORIA Antzerkia

Anita Maravillas taldeak mende hasierako ehungintza industrian inspiratutako *Kotondarrak* txotxongilo antzerkia eskainiko du. Sarrera, 3,80 euro.

## ZINEMA

### LASARTE-ORIA

#### MANUEL LEKUONA

**Hil kanpaiak**  
Ostirala: 19:00.

### HERNANI

#### BITERI

**Ane**  
Larunbata: 19:00.  
Igandea: 19:00.  
Astelehena: 16:30.  
**Stardog y Turbokat**

Larunbata: 16:00.  
Igandea: 16:00.

#### ANDOAIN

#### BASTERO

**Erlauntza**  
Larunbata: 19:00.

Igandea: 19:00.  
Astelehena: 19:00.  
Asteartea: 19:00.

#### El jinete del dragón

Larunbata: 16:30  
Igandea: 16:30.  
Astelehena: 16:30.  
Asteartea: 16:30.



## LABURPENA

### Hil kanpaiak

**Zuzendaria:** Imanol Rayo. **Gidoia:** Joanes Urkixo, Miren Gorrotxategi. **Argazkia:** Javier Agirre Erauso. **Musika:** Fernando Velazquez. **Herr.:** Espainia (2020). **Antzezleak:** Itziar Ituño, Eneko Sagardoy, Yon Gonzalez, Asier Hernandez, Iñigo Aranburu, Dorleta Urretabizkaia, Josean Bengoetxea, Kandido Uranga. **Iraupena:** 95 minutu.

## Iraganeko zauriak agerian utziz

*Hil kanpaiak* filma eskainiko da Okendu zinema taldearen Zineforumaren eskutik. Jatorriz euskaraz grabatua dago eta, lagungarri gisa, gaztelarazko azpidatziak izango ditu. Emanaldia 19:00etan hasiko da. Dorleta Urretabizkaia eta Asier Hernandez aktoreak ikus-entzuleekin solastera etorriko dira.

Imanol Rayo zuzendari iruindarraren bigarren lan luzea da *Hil kanpaiak*. Miren Gorrotxategiren 33 *ezki* eleberrian oinarrituta dago. 68. Donostiako Zinemaldian Zuzendari Berriak sailean lehiatu zen. Bere lehen lanarekin, *Bi Anai*,

Bernardo Atxagaren izen bereko eleberrian oinarritutako filmarekin Zinemira saria jaso zuen.

Garizmendi baserrian giza hezur batzuk agertu dira. Ebekoek, Fermin eta Karmen senar-emazteek, Nestor semeari deituko diote. Nestor arduratuko da gaiak. Hurrengo egunean, ordea, ez du hezurrik aurkituko. Aita ere desagertuko da. Ertzaintzari deitu eta horiek agertzean, hil-kanpaiak joka hasiko dira auzoko baselizan. Adur txarreko seinale horrek, gertaera latzak ekarri ez ezik, familiaren eta inguruko garai bateko zauriak irekiko ditu.

## Klima eta ekologia krisiaz solasean

Munduak bizi duen klima eta ekologia krisiaren inguruko liburua idatzi du Iñaki Petxarroman (Lasarte-Oria, 1979) BERRIAko kazetariak. *Ezezagunerako bidaia* jarri dio izenburua eta gaiaren inguruan adituak diren hamalau adituren laguntza izan du lana osatzeko. Liburua Aleka bildumako hamargarren zenbakia da.

Autoreak azaldu du, zientzialariek maiz ohartarazi duten arren, daramagun bidea zuzendu baino okertu egin dela, badirela hamarkada batzuk arazo klimatiko zein ekologikoak okertzen ari direla. Hain zuzen

ere hori da liburuak biltzen duena, laburpen bat egiten du, "iraganetik hona eta hemendik etorkizunerako balizko hipotesi ezberdinena".

Dagoeneko atzera bueltatzeko aukerak ere galdu direla azpimarratu du lasarteoriatarrek *Ezezagunerako bidaia* lanean. Era berean, neurri batean, mundua hemendik aurrera egiten denaren menpe ere badagoela nabarmendu du.

*Ezezagunerako bidaia* Berria, Elkar eta Jakinen arteko elkarlanaren emaitza izan da.

Liburua aitzaki, Lasarte-Oriako Aire Garbia plataformak idazle lasarteoriatarra gonbidatu du arazo klimatiko eta ekologikoei buruz solasaldia egiteko.

Hitzordua abenduaren 9an jarri dute, asteazkenarekin, 19:30ean, Osasun Zentroko bigarren solairuko balioanitzeko gelan.

COVID-19aren aurkako segurtasun neurriak direla eta, 20 pertsonako edukiera mugatua izango du hitzaldia, hortaz, solasaldira joan nahi duten herritarrek aurrez izena eman beharko dute [lasarteorianairegarbia@gmail.com](mailto:lasarteorianairegarbia@gmail.com) helbide elektronikora idatzita.



Egilea: Iñaki Petxarroman.  
Irudiak: Joxean Apeztegia.  
Argitaletxeak: Jakin, Elkar, BERRIA.  
Orrialde kopurua: 186.

ahatekinak  
ehizak eta hegaziak  
bakailao gezatua  
ondoak  
marinatuak  
olagarroa



aldika productos selectos

Industrialdea 19-20 LASARTE-ORIA • Tel.: 943377089  
aldika@aldika.com • www.aldika.com

Aurreratu zure eskariak  
telefonoz edo emailaz

**2<sup>mó</sup>**  
graduatu erreflexuen  
aurkako lenteekin  
**99€**

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



R.P.S. 91/20 I.L.G.

Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
LASARTE-ORIA

**MULTIÓPTICAS**

www.multipopticas.com   

# Zorionak

LASARTE-ORIAKO



**AHOBIZI ETA BELARRIPREST  
GUZTIEI**



Elkarrekin saiatu gara  
gure eguneroko inertzia linguistikoak astintzen,  
eta **modu kontzientean** gainera

LASARTE-ORIAN  
**EUSKARALDIA**

**GEHIAGO,  
GEHIAGOREKIN,  
GEHIAGOTAN**